



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Idazkaritza ■

Irteera : Z/21-02401

Data: 2021/04/29 13:58:58

Esp.kodea: 2021GONG0001

Gaia: EUSKAL FONDOA ZUZTEKO Lankidetzako
Proiektuetarako ekarpena eta bazkidetzako kuota
Hasiera eguna: 2021/03/30

JAKINARAZPENA

Jakin dezazun, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko apirilaren 23an egindako bilkuran, Alkatezatzak emandako eskurantzaren eskuordetzearen arabera, besteak beste, akordio hau hartu zuen:

“Euskal Fondoa: 2021eko proiekturako zuzendutako ekarpen ekonomikoa onartzea, eta bazkidetzako kuota ordaintzea (2021GONG0001)

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Garapen Komunitarioaren Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Arrasateko Udala EUSKAL FONDOA erakundeko kidea da, eta horren bidez bideratzen du hirugarren munduaren garapenean laguntzeko bere aurrekontuan jasotzen duen laguntzen zati bat, beste zatia proiektuak aurkezten dituzten Gobernu Kanpoko Erakundeen artean laguntzak banatuz egiten baitu, horretarako onartzen duen deialdi publikoan (lehia askeko deialdia).

Euskal Fondoa erakundetik lankidetzako programetarako proposamenen laburpena jaso da, Udalak proiektu zehatza hautatu dezan.

Proiektuari dagokienean, Udalak aukera du erakundea garatzen ari den proiektu jakin baterako laguntza izendatzeko, edo erakunde horren esku uzteko udal ekarpena zein proiekturako bideratuko den.

Bestalde, Euskal Fondoak erabaki du bazkidetzako kuotaren zenbatekoa mantentzea. Horrela, Arrasateko Udalak ordaindu beharrekoa, biztanleen kopuruaren irizpidearen arabera, 3.933,08 € izango da.

Hori guztia ikusita, Garapen Komunitarioaren batzordeak, aho batez, Tokiko Gobernu Batzarrari proposatzen dio ondorengo erabakia har dezala:

LEHENENGO.- EUSKAL FONDOA erakundearen alde 10.000 €ko ekarpena onartzea, 2021eko Aurrekontuko “1-0400-421-230-20-01 Euskal Fondoa – Kooperazioetarako programak” kontusailaren kontura. Ordainketari dagokionez, onartutako laguntza aldi batean ordainduko zaio onuradunari. Ekarpene hori honako bi proiektu hauetara bideratuko da:

- ✓ p319k. Ur edangarriaren sistema instalatzea. Miramar eta La Ceiba komunitateak. 2. fasea. San Francisco Menéndez (2). El Salvador..... 10.000€

BIGARREN.- Onuradunari jakinaraztea 10 laneguneko epea duela dirulaguntza onartzen duela adierazi dezan. Ulertuko da inplizituki onartu duela aipatu epean besterik adierazten ez badu.

Kodea	BB21/00510	Udala	ARRASATE/MONDRAGON	
Data	2021/04/29	CUDO	000.0055.AAAALS71.7.uz36	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAALS717.uz36			
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu				



Esp.kodea: 2021GONG0001

Gaia: EUSKAL FONDOA: 2021eko Lankidetz
Proiektuetarako ekarpena eta bazkidetz kuota
Hasiera eguna: 2021/03/30

HIRUGARREN.- Euskal Fondoa elkarteari 2021ko partaidetza kuota ordaintzea, 3.933,08€koa, 2021eko Aurrekontuko "1-0400-421-230-20-00 Euskal Fondoaren kuota" kontusailaren kontura.


LAUGARREN.- Erabaki hau Euskal Fondoari jakinaraztea."

Erabaki hau behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Edozein ere, nahi izanez gero, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu aurretik, BERRAZTERTZE ERREKURTSIOA aurkeztu dezakezu; horretarako, HILABETEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, haren aurka, zuzenean ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSIOA aurkeztu dezakezu Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, Donostian; horretarako, BI HILEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia egin dezakezu urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114 c), 123 eta 124 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera, eta uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duena, 8, 25, 46 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera.

Eta horretaz gainera, bidezkoztat jotzen baduzu, beste edozein egintza edo errekurtsio aurkeztu dezakezu.

Idazkaria



ANA BELEN HIDALGO CORRAL
29/04/2021

EUSKAL FONDOA
IJENTEA, 6 PALACIO GOIKOA
20003 DONOSTIA

Kodea	BB21/00510	Udala	ARRASATE/MONDRAGON	
Data	2021/apr./29	CUDO	000.0055.AAAALS71.7.uz36	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAALS717.uz36			
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu				